

-IRAKASKUNTZA-JARDUERA

Dolores Ibarruri BHIko irakas-taldea 2019-20 ikasturterako planifikatutako curriculumaren **funtsezko alderdiak** berrikusten eta egokitzen hasi da; horietan **arreta jartzeko eta sakontzeko**:

- Ikasturte bakoitzean gainditzea espero den gutxieneko eta ezinbesteko alderdiak definituz.
- Hasierako helburuak zehatz-mehatz betetzeari uko eginez, lan-planak malgutuz eta ikasleen gainean gehiegizko zereginen gainzamarik gabe.
- Birpaso eta errefortzu jarduerak lehenetsiz, handiagotze eta zabaltzeari uko egin gabe.

Ebaluazioari dagokionez:

- Oinarrizko gaitasunei lotuta eta curriculumeko arlo/irakasgaietan izandako garpen orokorra kontutan hartuko da.
- Funtsezko edo ezinbesteko ikaskuntzak asignatura bat gainditzeko kontutan hartu beharreko gutxiengoak izango dira. Egoera berezi honetan, Ikasturte hasieran 2. hiruhilekoan lortzeko planifikatutako helburuak, hain zuzen ere.
- Ikasturte hasieran 2. hiruhilekoan lortzeko planifikatutako helburuak oinarrizkotzat hartuko dira 2019-20 ikasturteko ebaluazio-prozesuan. Horrek ez du esan nahi ez dela ebaluatuko 3 hiruhilekoan egindako lana, aurrerago azaltzen den bezala.
- Jarduera presentziala bertan behera utzi zen unean, irakasleek informazioa zuten ikasleek ikasturte edo maila bakoitzerako planifikatutako oinarrizko helburuetarantz zer mailatan egin zuten aurrera zehazteko. Informazio hori ardatza izango da azken ebaluazioaren eta kalifikazioaren inguruko erabakiak hartzeko momentuan.

Ikastetxeko departamendu didaktikoak hasi dira hirugarren hiruhilekorako arloko programazioen moldatzea eta egokitze lanetan.

“Programazio egokitu” hauek ondoko alderdiak jasoko dituzte:

- Helburuen, edukinen, metodologiaren, berreskuratze sistemaren egokitzapena...e.a.
- Proba motak, ikasleentzako lanak eta kontuan hartuko dituzten askotariko erregistroak
- Mailaka, espero zen sakoneraz landu ezin izan diren oinarrizko elementuak.

- Ikasle guztiontzat, baina bereriki zailtasun gehien dituzten ikasleentzako udako oporretarako indargarri- proposamen orokorrak eta zehatzak.

Departamendukideen partetik denbora eta dedikazioa eskatzen duen prozesua da. Prozesu hori amaitzean, dokumentazioa ikasle zein familei helaraziko diegu.

-IKASLEEN EBALUAZIOA IKASTURTE AMAIERAN

Bi egoera hauek jorratu behar ditugu, era diferentziatuaz:

a. Hezkuntza-jarduera presentzian, aurreikusitako helburuak eta gaitasunak lortu ez zituzten ikasleen ebaluazioa:

1. eta/edo 2. ebaluaziotan asignatura batean edo batzuetan ebaluazio negatiboa jaso duen ikasleaz ari gara. **Ebaluazio negatiboa duten irakasgaietan ondorengo neurriak hartuko dira:**

Hirugarren hiru hilekoan, helburu hauetarako jarduerak planteatu beharko dira:

- Ahal dela, 1. eta 2. hiru hilekoei dagozkien **helburuak lortzea**, orain maila- gutxienez jotzen baitira.
- Hirugarren hiru hilekoari dagozkion helburuen lorpenean **aurrera egitea**.

Ezinbestekotzat jotzen diren helburuak lortuz gero, nahikoa kalifikazioa (5) emango da dagokion arloaren edo irakasgaiaren azken ebaluazioan.

b. Aurreikusitako helburuak eta gaitasunak modu presentzian lortu zituzten ikasleen ebaluazioa:

1. eta/edo 2. ebaluaziotan asignatura batzuetan edo guztietan ebaluazio positiboa jaso duen ikasleaz ari gara. **Ebaluazio positiboa duten irakasgaietan ondorengo neurriak hartuko dira:**

Hirugarren hiru hilekoan, helburu hauetarako jarduerak planteatu beharko dira:

- Dagoeneko eskuratutako helburuak eta gaitasunak **sakontzera** eta hirugarren hiru hilekorako (edo ikasturtearen amaierarako) planteatutako helburuak lortzeko bidean **aurrera egitera**.



Lehen bi hiruhilekoetarako planteatutako helburuak eta gaitasunen garapena lortu, **baina hirugarren hiruhilekoan aurreikusitako helburuak betetzen ez duen ikasleak, nahikoa kalifikazioa (5) lortuko du.**

Lehen bi hiruhilekoetarako planteatutako helburuak eta gaitasunen garapena lortu eta, gainera, ikasturte hasieran 3. hiruhilekorako programatutako gutxieneoak lortzen dituzten ikasleek Ongi edo Oso ongi kalifikazioa lortuko dute.

Gainera, Oso ongi edo Bikain kalifikazioa lortuko lukete ikasturte hasieran hirugarren hiruhilekorako aurreikusitako helburuak lortu dituzten ikasleek, helburu horiek lortu badituzte lan autonomoa eginda.

IES DOLORES IBARRURI BHI

Zuzendaritza Taldea